

Aiara batuz

Trabajando por los pueblos

INFORMAZIO ORRIA: AIARA BATUZ – *Trabajando por los pueblos* – 5. Zk.

Sei hilabeteren ostean, hemen gaude berriro ere zuekin. Gaurtik eta hurrengo udal hauteskundeetara arte **bi argitalpen jasoko dituzue**:

Lehenengo hau, Udalean landutako gaiei buruzko *iruzkin batzuk eta balantzea bera jasotzen dituen*; eta beste aldetik, *talde gisa egindako autokritika ere*.

Bigarren aldizkarian, zuekin guztiokin partekatuko ditugu gure ideiak eta talde gisa daukagun funtzionamendua, hurrengo legegintzaldira begira: *Etorkizunerako planak eta proiektuak*, bai erdizka dauden gai puntualetan, baita arazo zaharren edo proiektu berrien inguruko ekarpenak ere.

Lehenengo balantzea

la lau urteren ondoren, ikasi egin dugu zein den udalaren funtzionamendua eta esperientzia hartu dugu herritarrez osatutako plataforma gisa. Beraz, gurean (Udal honetan) zerk huts egiten duen eta eguneroko kudeaketa nola hobetu daitekeen aztertzeke moduan gaude.

Asmo argi batekin sartu ginen Udalean: herritarren ekarpenak kontuan har zitzatela eta gehiengo osorik ez egotea. Gobernu Taldea edozein izanda ere, gure hasierako asmoa ikastea zen, ez Gobernu Taldearen oposizioa izatea, aurka egiteko hutsagatik. Gai bakoitza aztertu eta beharrezko ekarpen guztiak egitearen aldeko apustua egin genuen, sortzen ziren arazoei konponbidea bilatu eta proiektuak hobetzeko asmoz.

Gaur esan dezakegu inuzenteeiak izan ginela. Hainbat gaitan hobekuntzak proposatu genituen, gure taldeak proposatutako proiektuak onartzea lortu genuen, baina Gobernu Taldeak ez zituen aurrera eramaten, bere horretan uzten zituen edo azken unean ateratzen zituen aurrera (aurreko aldizkariaren kasuan bezala, lan-poltsari edo udal informazio-orriari dagokionean lotsaz gorriarazi genituenean).

Aldi horretan, Ikastola ingurua egokitzeke obra burutu zen, gure taldeak sustatutako lana.



Aiara batuz

Trabajando por los pueblos

Bigarren urtean, 2013an, estrategia aldatu genuen eta udal aurrekontuak negoziatu genituen Gobernu Taldearekin. Horiek onartzearen truke, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor Berriaren erredakzioa koordinatzea proposatu genien, proiektua argitara irten zedin, Arau Subsidiarioak zaharkituta geratu baitira. Gainera, Gorobealeko Ermandadean Gobernu Taldeak izendatutako ordezkariaren aldetik informaziorik jasotzen ez zenez, Aiarako Udalean ordezkari hori izateko eskatu genuen. Lehenengo gaiari dagokionez, Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor berria abian jartzea lortu dugu. Bigarrenari dagokionez, Gorobealeko Ermandadea, dinamizazioa hobetu dela uste dugu. Hala ere, hobekuntzak ez dira nahikoak eta ezin izan dugu Gobernu Taldearekin modu eraginkorragoan lan egin.

Aurreko urteetan Udaleko kide aktibo gisa bizitako eta jasandako guztiagatik, 2014ko ekitaldian erabaki dugu onena izango dela **oposizio konstruktibo** bat egitea. Izan ere, ordura arte egindakoa Gobernu Taldeari babesa ematea izan da, haiekin hausnarketak partekatzen saiatzea, betiere Udalaren kudeaketa hobetzeko asmoz; baina desgaste pertsonala baino ez digu ekarri eta gure taldearentzako energia galtzea izan da. Herritarrez osatutako plataforma garen heinean, zapuztuta sentitu gara; uste genuen posible izango zela haiekin batera Aiararen alde lan egitea, baina antza denez Gobernu Taldearen beraren egoa Aiara baino garrantzitsuagoa da. 2014ko aurrekontuetarako geure proiektu propioak aurkeztea erabaki dugu, osoko zuzenketa bat eginez. Izan ere, iruditzen zaigu Gobernu Taldeak planteatutakoak ez dituela Aiararen beharrianak konpontzen.

Hobetu beharreko puntu gisa, aipatu behar dugu ez dugula lortu gure webgunea dinamiko eta eguneratuta mantentzea. Hori zuzendu behar dugu. Badakigu Udalean lantzen diren gaiak ez zaizkiela herritarrei heltzen puntualtasun eta informazio nahikoarekin.

Argitzea

Aldizkari honetan aztertzeko modukoak diren gaiak banaka lantzen hasi aurretik, ohar bat egin nahi dugu aurreko zenbakian (4. zk.) agertu zen “*Funcionamiento del Ayuntamiento: Reorganización*” albistearen gainean. **Ez genuen inor mindu ez inor agerian uzteko asmoz egin, eta are gutxiago udal langileak.** Gure asmoa zera azpimarratzea izan zen: “Udalean dagoen antolakuntza eskasa edo antolakuntzarik eza giza baliabideak eta baliabide materialak optimizatzeko (kanpo aholkularitzako txosten baten bidez bermatua)”. Ohar hori eginda, Aiarako herritarrei adierazi nahi diegu, gure ustez, Gobernu Taldeak oraindik ere ez duela ondo antolatzen Udala .

Udaleko Informazio Batzordeetako lana

Legegintzaldia ia hiru eta erdira doa eta herritarrei azaldu nahi diegu zer den Aiara Batuzek aurkitzen duena udal batzordeetan. Informazio Batzordeak Udalean hilero egiten diren bilerak dira. Alderdi politiko desberdinetako zinegotziak elkartzen dira eta mahai gainean dauden gaiei buruz hitz egiten dute. Egia esan, legegintzaldiaren hasieran, Gobernu Taldea berria zenez eta esperientziarik ez zuenez, Aiara Batuz osatzen dugunok ulertu ahal genuen batzordeetako presidentek bilerak behar beste ez prestatzea.

Baina legegintzaldiaren amaieran gaude eta udal taldea garen heinean ezin dugu ulertu oraindik ere batzordeetako gai ordenak lantzeko informaziorik gabe jasotzen jarraitzea; hau da, landu beharreko gaiaren izenburua dator, baina ez dago jasota Gobernu Taldearen proposamenik gai horren inguruan eta ez da informaziorik eransten gaia landu ahal izateko.

Adibide argi bat jartzearen:



2014ko urrian egindako Gizarte Ongizateari buruzko udal batzordean, gai ordenaren bosgarren puntua hauxe zen: *“Amurrioko kiroldedia Aiarako herritarrek erabiltzeko proposamena”*. Ez zegoen gaiaren inguruko inolako dokumentazio erantsirik, beraz, ez dago testu edo ideiarik bileraren aurretik lantzeko. Aiara Batuzen asteroko bileran gaia eztabaidatu genuen eta suposatu genuen Gobernu Taldeak planteatuko zuena, baina ezin da beti asmatu, aurretiko informazio falta horrekin. Aiara Batuzek ideia bat eraman zuen Batzorde horretara; bertan planteatzen denarekin bat etorri daiteke edo ez. Bilera egiteko unean azaldu zituen ideiak edo proposamenak, beraz, batzuetan gaia mahai gainean geratu behar da egindako proposamenak berriro baloratu ahal izateko.



Gobernu Taldeak azaroan aurkeztu zituen Administrazio Batzetako argiteria publikoaren mantentze-lanak kontratatzeko pleguak; Bilboren tamainako udalerrri baterako modukoak ziren, ez Aiararako modukoak. Hau da, zirriborroa ez zen gure herriaren ezaugarrietara egokitu eta noski, ez zitzaien Batzei jakinarazi. Lan egiteko modu horren ondorioz, puntu hori mahai gainean geratu behar izan zen, pleguak berriro egin, beste batzorde batean lantzeko utzi eta beraz, batzorde horretan denbora galdu zen eta horrekin batera zergadunen dirua.

Administrazio Batzekiko harremana

Administrazio Batzen betebeharrak nagusia, beste batzuen artean, herritarrei arreta eta zerbitzua ematea da. Gure udalerrian, zerbitzu horietako batzuk Administrazio Batzek ematen dituzte; hala nola ur hornidura, argiteria publikoa, bideen mantentze-lanak, euri-ur eta ur beltzen sareak eta abar. Beste zerbitzu batzuk Udalak ematen ditu, hala nola obra-baimenak, zabor bilketa eta abar. Logikoena izango litzateke pentsatzea administrazio bien artean koordinaziorako bide bat egongo zela arazo partekatuak konpontzeko, azpiegiturei dagokienean elkar laguntzeko eta abar. Ba ez da horrela! Ez dago horrelakorik!



Orain arteko lege-gintzaldian Udalak bakarrik bi bilera deitu ditu Administrazio Batza guztiekin. Lehenengoan, helburua zera izan zen: Udalak Administrazio Batzei ematen dien zerbitzu-katalogoa elkarrekin aztertzea. Baina esan beharra dago bilera hori nahiko txarto amaitu zela; beraz, katalogok egin gabe jarraitzen du. Bigarrenengan, orain dela gutxi ospatu dena, saneamenduaren inguruan hitz egin zen eta mahai gainean jarraitzen duen gaia da, aurrerago azaltzen den moduan.

Aiara batuz

Trabajando por los pueblos

Administrazio Batzekiko harremanak hobetzea zen Gobernu Taldearen helburuetako bat baina harremana hiltzen utzi dute.

Grafikoki azalduko dugu:



Zer irudituko litzaizueke Aiarako Udalak Aldundiari udalerriko arazo baten inguruko gutun bat bidalita, erantzunik jasoko ez balu, ez behin bakarrik, baizik eta zazpi aldiz ere?



Zer irudituko litzaizueke Aldundiak obra bat egiteko ez balu baimenik eskatuko edo Udalean horren berri emango?



Zer irudituko litzaizueke Aldundiak udalerrian obraren bat egiten duenean (Udalari mantentzea dagokion lan bat), ez balu alegaziorik egin ahal izateko txosten edo proiekturik aurkeztuko?

Ba "Aldundia" jartzen duen lekuan jarri "Udala" eta "Udala" jartzen duen lekuan jarri "Administrazio Batza". Kasu batzuetan eta behin baino gehiagotan hori izan da Udalak Administrazio Batza batzuekin harremanetan jartzeko izan duen modua.

Aiara Batuzen ustez, Batzek Udalarengandik jasotzen duten tratua, kasu askotan, ez da hurbila ez naturala. Batzak eta bertako kideak gure herrien ordezkari dira; suposatzen dugu ahal duten ondoen kudeatzen dituztela, are gehiago kontuan izanda "beren denbora" ematen duten pertsonak direla. Kudeaketa, berez, konplikatua da eta gainera Administrazio Batzetan giza baliabide eta baliabide materialen falta daukate. **Aiarako herriek asko dute hobetzeko baina Udalbatzak kudeatzeari dagokionez, orokorrean, ez dira hain gaizki ari.**

Ulertzen dugu Udalak obra bat burutzen duenean ondorengo mantentze-lana Administrazio Batzei dagokiela; beraz, aldez aurretik haiekin jarri behar da harremanetan, obraren inguruko ekarpen eta alegazioak egiteko aukera izan dezaten. Udalaren eta Administrazio Batzen arteko elkarriketa eta komunikazio falta horren ondorioa hauxe da: kaleak behar bezala seinaleztatuta ez egotea, oinezkoentzako pasabideak txarto kokatuta egotea, paperontziak metro eta erdiko altueran jarrita egotea (ume txikiek erabiltzea ezinezkoa)...



Adb. Paperontzia



Adb. Oinezkoentzako pasabidea

Laburbilduz, udal teknikariak ez dira zailtasun horietaz konturatu, bide publikoen mantentze-lana edo zirkulazio arazoak kudeatzeko ardura ez delako Udalaren eskumena. Esan bezala, "mantentze-lanen zama eta obrak oker gauzatzearen ondorioak Batzek hartzen dituzte euren gain".

Luiaondoko anbulatorio berria (Patxita etxea)

2014ko abenduaren 3an Aiarako Udalak Luiaondon, Patxita etxea izenez ezaguna den eraikinean, eraikiko den anbulatorioaren inguruko erakusketa bat egin zuen, Luiaondoko Kontzejuari eta orokorrean Aiarako herritarrei eskainia. Patxita Etxea eraikinaren birgaikuntzaz arduratu den Obra zuzendaria, David Pinedo Ortega, izan zen erakusketa egin zuena.

Erakusketa horretan herritar batzuek galdera teknikoak egin zituzten; hornidurak nola geratuko ziren beste hargune batzuetarako, partzelaren eraikigarritasun-portzentajea, goiko solairuetako azalera aprobetxagarria eta abar.

Azpimarratu nahi dugu **oso pozik gaudela Luiaondoko anbulatorio bat egingo dutelako**. Oinarritzko zerbitzu bat da eta baldintza hobeetan eman ahal izango da, Aiarako biztanleriaren erdia bizi den gune batean. Beraz, ongi etorri.



Gobernu Taldeak, Udalaren kudeaketa hartu zuenean, parte-hartze prozesuak, hurbiltasuna eta kontsultak egitea sustatzeko asmoa azaldu zigun. Hala ere, ikusi duguna zera da: Udalak erakusketa publiko bat egin duela obrak hasi baino bost egun lehenago. Horrela, *herritarrek ez dute aukerarik izan obraren inguruko ekarpenik egiteko*; proiektua onartuta zegoen ordurako. Hala egon ez balitz, proiektua hasierako fasean zegoenean egin izan balitz erakusketa, herritarrek aukera edukiko zuten ekarpenak egiteko eta horri esker egungo proiektua hobetzeko.

Guk ulertzen dugunaren arabera, Luiaondoko kontzejuari eskainitako erakusketaren asmoa informatiboa izan zen. Horiek al dira ahotan zituzten parte-hartze prozesuak?

Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor berria (HAPO)

Aiararako Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor berria burutzeko hurrengo faseekin jarraituz, erredakzio-taldea HAPOren aurrerapena lantzen ari da. Dokumentu horrek finkatuko ditu oinarriak ondoren Aiarako hirigintza antolamendu osoa zehatz-mehatz egiteko.

Aiara Batuzen izenean, **uste dugu beharrezkoa dela Udalak Aurrerapen hori ontzat eman aurretik Administrazio Batza guztietan aurkeztea**, ikusteko zein neurritan gehitu ahal izan den Aurrerapen horretan herritarrek eta Batzek proposatutakoa (bai herri bakoitzean izandako bileretan, baita posta elektronikoz ere) eta konprobatzeko ea jendeak planteatutako kezka eta proposamenak jasota dauden edo ez. Eta egindako proposamenak kontuan ez hartzekotan, zeintzuk diren arrazoiak.

Behin HAPOren Aurrerapena Udalean aurkeztuta, *2 hilabeteko epea egongo da partikularrek, Administrazio Batzek, bestelako Administrazioek eta mugakideak diren Udalek Aurrerapen horren inguruan ideiak eta iradokizunak aurkezteko*, oraingoan modu ofizialean eta lurzoruari buruzko legean aurreikusitako administrazio-izapide bidez. Ideia horiek aintzat hartuko dira eta onartzekotan, gehitu egingo dira.

HAPO berriaren ingurumen arloko ebaluazioa ere hasteke dago, Arabako Foru Aldundiak egitekoa. Horri dagokionez ere uste dugu beharrezkoa dela pertsonak, elkarteak, sindikatuek, Administrazio Batzek eta abar iritzia ematea.

Udaleko hirigintza sailaren geldotasuna

Hirigintza da Udalen eskumen nagusietako bat. Antolamendu horien aldaketak Lurzoruaren Legearen arabera izaten dira eta luzeak eta korapilatsuak dira, burokrazia askokoak eta urteetako iraupena izaten duten izapideek. Arabako Foru Aldundiak dauka azken hitza horien onarpenean.

Batzuetan, hirigintza arloko aldaketak partikular batek mugiarazten ditu eta beste batzuetan Udalaren beraren beharrez bat izaten da. Hala ere, kasu guztietan, ekimen publiko zein pribatua izan, hirigintza arloko izapidea Udalak egin behar du, Udalaren funtzio publiko bat baita.

Izapide horiek ahalik eta laburrenak eta eraginkorrenak izateko, **Udalak lidergorako jarrera izan behar du, jarrera proaktiboa**. Ezin duguna onartu zera da, hirigintza arloko izapide batzuk hileetan geldirik egotea, Udalak ez dituelako dagozkion txostenak egiten.

Adibide bat jartzearren, Aiarako Arau Subsidiarioen 4. aldaketaren tramitazioa 2014ko martxoan geldiarazi zuen Aldundiak, udal txosten teknikoaren faltagatik. Egin eta zuzendu arte, ez ditu Aldundiak ontzat eman. Hori abenduan izan da, bederatzi hilabete beranduago.

Kasu batzuetan hileak tardatzen dute udal obretarako baimen eta jarduera baimenak ematen, eta Udalaren aldetik aintzasun-falta sumatzen da.

Hemen garrantzitsua da gogoratzea Udalaren hirigintza arloko erabakiek eragina dutela dagokion herriko Administrazio Batzak bere gain hartu beharko dituen betebeharretan. Gogoan izan ur-horniketa eta argiteria, esaterako, Batzen eskumenak direla. Udalak eskumena dauka etxebizitza berrien eraikuntza onartzeko baina Administrazio Batzak eman beharko die zerbitzua. Ondo koordinatzea ezinbestekoa da. Beraz, Udalak, erabilera eta etxebizitza berriak baimentzen dituenak, bere aurreikuspenen berri eman behar dio dagokion herriko Administrazio Batzari.

Lan horiek aurrera eramateko, beste behin ere, Gobernu Taldea ondo antolatuta egon behar da eta lidergorako jarrera izan.

Zabor bilketa

Zabor bilketa eskualde mailan kudeatzen du Aiarako kuadrillak eta Udalek dagokien ekarpen ekonomikoa egiten dute. Udal batzorderen batean zaborren gaia aipatzen bada, “tasak” eta “igoera” hitzak agertzen dira.



Aiara Batuzen izenean **Gobernu Taldeari deia egin nahi diogu birziklatzeari buruzko informazio-kanpaina bat burutzeko**. Birziklatzeak daukan garrantziaz ohartarazteko, doako bilketa bat izateagatik. Aiarako herritar guztiok horren alde egiten badugu, zabor gutxiago izango dugu edukiontzietan eta ondorioz, tona gutxiago jasoko dira eta gutxiago ordainduko diogu Gasteizko zaborteagari. Noski, bere momentuan Gobernu taldeak eman zigun erantzuna baiezkoa izan zen. Egindako ekintzak ordea, bat ere ez. Itxuraz, eman dezake Gobernu Taldea horretan ari dela: materia organikoa jasotzearen aldeko apustua egin dute, ikastaroak antolatu dituzte, edukiontzi marroiak jarri dituzte eta konposta egiteko tresnak banatu.

Baina zoritxarrez, ez da horrela. Eskualde mailan diru-laguntza bat jaso da plan pilotu hori egiteko eta Aiaran diru-laguntza horren arabera gutxienekoak egin ditugu baina ez da apustu gehiagorik egin. Horren adierazgarri da birziklatzeko “mini-puntuak” erosteko udal partida ere. Ondoko herrietan asko erabiltzen ari dira eta Gobernu Taldeak ezeztatu egin zuen 2014ko aurrekontuan. Itxura denez, Gobernu Taldeak ez dauka proiekturik zaborrei dagokienez ere. Horretan ere edonola funtzionatzen du.

Ikastaroak - parte-hartzaile kopurua

Berriro ere salatu behar dugu, eta oraingoan publikoki, Gobernu Talde honek Aiarako herritarroi urtero eskaintzen dizkigun ikastaroen inguruan egiten duen kudeaketa.

Urtero eskatzen dugu ikastaroek aurrera egiteko erroldatu kopurua hain altua ez izatea. Gaur egun, eta Bildu gobernuan dagoenetik, gutxienez 10 erroldatuk izena ematea eskatzen dute, ikastaroak aurrera irteteko.

Behin eta berriz jartzen ditugu ondoko herrietako adibideak. Amurrión, esaterako, 8 pertsona soilik behar dira ikastaroak egiteko (erroldatuak izan zein ez). Eta biztanle kopurua hirukoitza den herri batez ari gara. Baian hemen, 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalerri batean, herri desberdinetan bizi garen eta dispersioa oso handia den leku batean, 10 erroldatu behar dira ikastaro bat martxan jartzeko.

Aiara Batuzen izenean uste dugu garrantzitsuena ikastaroak egitea dela, Aiaran bizi garenok aitzakia bat izatea elkartzeko eta harremana izateko. Ikastaro horiek oso baliabide garrantzitsuak dira; ezin ditugu alferrik galdu.

Gorobel

Aiara Batuzek Gorobelean Ermandadean Aiarako Udalaren ordezkari izatea eskatu genuen. Horren arrazoia izan zen gainerako talde politikoek ez genuela batere informaziorik jasotzen aurreko ordezkariaren eta Ermandadeko presidentearen aldetik.

Mendi inguruaren kudeaketa hobetzeko ideia daukagu buruan, inplikaturako eragile guztiekin, batez ere abeltzainekin. Uste dugu guztiz egingarria dela, betiere denok parte hartzeko bideak irekitzen badira.

Orain, behintzat, Mendi aldean lantzen ari diren gaien inguruko informazioa daukagu baina Gobernu Taldearekin lan egitea oso zaila egiten ari zaigu. *Hasiera batean, Gobernu Taldeak ez zuen gogorik izan Aiara Batuzekin arlo horretako parte-hartzea eta lana partekatze* baina parte-hartze hori onartu behar izan zuten 2013ko aurrekontuak onartzearen truke. Egoera hori eguneroko lanean islatzen da.

Pozik gaude lan batzuk egin direlako, hala nola **bazkalekuen kudeaketarako plana aztertzen hastea eta basoberritze eremuak ixtea**. Lan horiek dinamizatzen ari gara baina oraindik ere asko dago egiteko.

Pena da legegintzaldi honetan lan gehiagorik ezin egitea, beldur politiko hutsengatik.

Aiara Batuzek ez du Mendilerroaren erabileren erabateko aldaketa eskatzen, baina uste dugu beharrezkoa kudeaketan esku hartzea. Horregatik, uste dugu Aiara eta Gorobelean Antzinako Ermandadeak epe luze eta erdirako plan bat garatu behar duela, inplikaturako beste eragileekin batera. Agian, kudeaketari modu profesionalan ekin beharko genioke.



Aiara batuz

Trabajando por los pueblos

Arau Subsidiarioen 5. aldaketa - Aiarako Egoitza Berria

Alday Fundazioak egoitza handiago eta modernoago bat Arespalditzan egiteko asmoa dauka, egungoa ordezkatzeko. Horretarako, Aiarako Arau Subsidiarioen 5. aldaketa izapidetzen ari dira. Hauek geldiune bat jasan dute, eta gaur egun, aldaketa hori ez onartzeko arrazoi bakarra ez da inolako idazkitan oinarritzen, Gobernu Taldearen baieztapen hutsetan baizik. Eztabaidatzen ari garena zera da: ea egoitza berriko hondakin-urak egongo diren hobi septikoak, Arespalditzako herrikoa, beste 20 ohe horiek ekarriko duten karga gehigarriari aurre egin ahal izango dion. 20 ohe berri horiek sortu dezaketena 5 etxebizitzatan sortu daitekeenarekin parekatu dezakegu.

Uraren Euskal Agentziak bi aldiz jakinarazi du *“egun dagoen hobiak isuri-karga gehigarri hori har dezakeela uste dutela”*. Gainera, teknikari independente batek horren inguruko txosten bat kaleratu du. Arespalditzako Administrazio Batza da hobiaren titularra eta prest azaldu da gaiaz hitz egiteko. Hala ere, Udalak, isuria egokia izatearen legezko erantzuleak, zalantzak ditu. Zalantza horiek ez ditu txosten tekniko baten bidez argudiatu, baina horien arabera esan dezakegu ez duela ontzat ematen egoitza handitu ahal izateko Arau Subsidiarioak aldatzea.

Zentzurik ba al dauka horrek? Aiara Batuzen ustez ez. Eskudun administrazioak (URA) egin ditu txosten batzuk hondakin-uren isuriak baimentzearen alde eta egoitza berri bat behar da lehenbailehen, egungoa zaharkituta baitago.



Egoitza berri bat eraikitzeko aukera daukagu eta aiararrok ezin dugu aukera hori alferrik galdu. Oso azpiegitura eta baliabide garrantzitsua da eta Alday Fundazioagatik ez balitz, Aiaran ezingo genuke horrelakorik eduki.

Gaur egun, Aiara Batuzen uste dugu ez dagoela arazo legalik proiektu hori errealitate bihurtzeko. Gure udalerrian mugimendua sortuko da, lanpostu gehiago sortuko dira eta jendea Arespalditzara joan-etorrian ibiliko da. Horrek ekonomia mugiaraziko du, eta gainera, adineko pertsonen zainketarako dugun beharrari erantzuna emango zaio.

Isurien Kanon eta baimenak. Aiarako saneamendu eta arazketa-sistemak

Oso gai garrantzitsua da aiararrontzat eta Gobernu Taldeak bere kaxa jardun du, ez soilik beste alderdi politikoen babesik gabe, baizik eta are larriagoa dena: Administrazio Batzei bizkarra emanaz, eta horiek dira hain zuzen, gaiak zuzenean eragiten dienak.

Aldizkari honetako irakurleei aurrekariak emate aldera, esango dugu URA Agentziak, aurreko urteetan legez, Aiarako Udalari bidali diola isurien kanonari dagokion zenbatekoa, ordainketa egin dezan. Hondakin-ura erreketara botatzen duen edonork kanon bat ordaindu behar du eta horren zenbatekoa uren arazketa-mailaren arabera da.

Aiararen kasuan, kanon hori Udalak ordaintzen du, hori baita baimenaren titularra udalerrri osorako. Salbuespen kasu batzuk daude, azken urteetan eraiki diren arazketa-sistemei dagozkienak. *URAk bidalitako idazkiari erantzunez, Gobernu Taldeak, gainerako alderdi politikoei inolako informaziorik eman gabe, alegazio-idazki bat bidali du URA Agentziara, esanez Udalak ez daukala eskumenik gai horretan eta isuriei dagokien baimenak Administrazio Batza bakoitzarekin kudeatu behar direla.*

Lehenik eta behin esan nahi dugu, Aiara Batuzen izenean, uste dugula egoera ez dela zuzena, isurien inguruko baimenak arautu behar direla. Administrazio Batza bakoitza, instalazioen titular gisa eta saneamendu-sareen arduradun gisa, isuriaren baimenaren titularra izan beharko litzatekeela. Baina erregulazio hori Administrazioekin adostuta egin beharko litzatekeela uste dugu, jakinda alde zuzenetik zein den hobi guztien eta arazketa-sistemen egoera eta zein obra egin behar diren arazketa-sistema horiek beharrezko kalitate-maila lortzeko. Hala ere, Gobernu Taldeak ez du gai hori modu egokian kudeatu.

Administrazio Batzek ez dute erabaki horren inguruko informaziorik jaso eta zuzenean eragiten dien zerbait da. Izan ere, URAREN jomugan jartzen dira, haiek horren jakitun izan gabe. Zintzotasun instituzional falta da hori.

Gaia beste era batera bideratu zitekeen, Administrazio Batzekin batera zerbait planteatuz, alde zuzenetik egoera aztertuz, aukerak kontuan hartuz, **sare horiek erregularizatzeko egon daitezkeen diru-laguntzen deialdiak begiratzuz ...**

Aiara Batuzek egoera konpontzea nahi du eta oinarri dugun errealitatetik abiatuta egutegi bat markatzea proposatzen dugu. Betiere Administrazio Batzekin batera lan eginez, gure saneamendu- eta arazketa-sareak egungo araudira egokitzeko.

Orain dela gutxi bilera bat egin da Aiara udalaldean, Aiara Batuz 2014ko abenduan ospatutako plenoan kexa luzatu eta gero, eta Batzar Administrazioak mugitu ondoren. Bileran horretan erakunde ezberdinak hartu zuten parte, esaterako, URA, AFA, CAKU, Batzar Administrazioak eta Udala bera. Otsailaren 22an egindako bileran, *URAk azaldu zuen Udalak bidalitako idazkiari erantzuneko diola kanon gaia kontutan izanda eta ez besterik, hori bait zen jorratzen zen gaia bakarra.*

Bileran argi gelditu zen Aiara eta zonaldeko ura eta saneamenduen kudeaketa hobetu behar dela eta kudeatzaileak gaitasun tekniko eta ekonomikoa izan behar duela gainera. Bertan, lanean jarraitzea adostu zen, bilerak eta lana eginez, baina kontutan izanda agente guztiek parte hartu behar dutela prozesuan eta erabakiak hartzean.

Bermatzeko, Gobernu Taldeak, adostutako ildo jarraitzen duela eta erabakiak hartzerako ordua besteak kontutan hartzen dituela, Aiara Batuz adi egongo da eta gai honen jarraipen bat egingo du.



Aiara batuz

Trabajando por los pueblos

Amaitzeko

Urte berri ona opa dizuegu denoi, nola ez. Iruditzen zaigu udal mailan hilabete zailak ditugula aurretik, izan ere udal hauteskundeak izango dira 2015eko maiatzaren 24an eta talde politikoak urduri daude alkatetza preziatu hori lortzeko aukerarekin.

Gure aldetik, hauteskundeei begira, **sinadura-bilketa egingo dugu berriz ere herritar plataforma gisa aurkeztu ahal izateko. Egia da alderdi politikoekin lan egitea oso nekagarria dela askotan, baina uste dugu Aiara Batuzen lana oso garrantzitsua dela. Gure taldea da “goiko aginduak” jasotzen ez dituen bakarra, erabakiak modu independentean hartu ditzakeena, erabakietan akatsak izan ditzakeena, baina kanpoko inork inposatu gabe; beraz, horretatik ikasten dugu.**

Hainbeste itxaron den aldaketa hori legegintzaldi honetan gehiago nabaritu zitekeela uste dugu baina aurkeztu ginenean genituen ideiak defendatzen jarraitu behar dugu. Lau urte hauek gure proiektuaren hasiera izan dira eta denbora gehiago behar du garatu eta finkatzeko. Orain hobeto ulertzen dugu nola funtzionatzen duen Udal batek eta nola planteatu behar den eguneroko kudeaketa.

Aldizkari honetan aurretik egin izan dugun moduan, **gogorarazi nahi dizuegu Aiara Batuz irekita dagoela Aiararen alde lan egin duten guztientzat.** Astero biltzen gara. Astelehenetan, 18:00etan, Arespalditzako Sindikatuaren eraikineko hirugarren solairuan. Bertan udal gaiak lantzen ditugu, baita Aiaran gertatzen diren kontuak ere.

Baten batek Aiararen alde lan egiteko interesa badu, gurekin harremanetan jar daiteke inolako konpromisorik gabe. Informazioa eskatu, gure funtzionamendua zein den ezagutu eta gurekin aktiboki lan egin nahi duen edo ez erabaki.

